

PRENTSA-OHARRA

Teknikerrek elektromugikortasunaren arloko bere berrikuntzak erakutsiko ditu Go Mobility azokan

- *Zentro teknologikoak bere potentzia-elektronikako ekipamendu eta motor elektriko berriak aurkeztuko ditu bi erakusgarri berrizaileren bitartez*
- *Martxoaren 11n eta 12an, Irungo Ficoba aretoan, ekitaldiaren bigarren edizioa izango da; ekitaldiak mugikortasun iraunkorraren arloko Europako hegoaldeko profesionalak elkartuko ditu*

[Eibar, 2020ko martxo 11] - Hiriguneetako bizi-kalitaterako eta osasunerako arazo nagusi bihurtu dira kutsadura eta trafiko-pilaketa. Horregatik planteatzen da ibilgailuen elektrifikazio jarraitua kezka horrentzako aukera eraginkor gisara.

Basque Research and Technology Alliance (BRTA) aliantzako kide den **Teknikerrek** elektromugikortasunaren arloan dituen azken berrikuntzak plazaratuko ditu martxoaren 11n eta 12an, **Go Mobility** azokan. Ekitaldia erreferentziako topagunea da mugikortasun iraunkorraren eta energiaren biltegitratzearen arloetako Europako hegoaldeko profesionalentzat.

Zentro teknologikoak 3. pabiloiko 3-04 gunean izango du standa, eta bertan erakutsiko du potentzia-elektronikan eta motor elektrikoetan duen ahalmena. Zehazki, bi erakusgarri izango ditu ikusgai, azken urteotan egindako aurrerapenak erakusteko. Zentzu horretan, Teknikerrek ibilgailuen sektorea eraldatzera bideratu du bere espezializazioaren eta garapen teknologikoaren zati bat, ibilgailu elektrikoak sustatu baititu.

Gainera, Ficoba aretoan (Irun) egingo den ekitaldiaren bigarren edizioak aukera emango du mugikortasun berriaren arloko zenbait parte-hartzaileekin harremana estutzeko, alegia, aukera jasangarri, irisgarri, seguru eta konektatuagoak sortu nahi dituztenekin.

Neurrirako potentzia-elektronika

Alde batetik, Teknikerrek silizio-karburuzko (SiC) erdieroaleak dauzkan lau fase-dun inbertsore bat aurkeztuko du, ibilgailu elektrikoaren erreluktantzia konmutatuz motorrak kontrolatzeko balio duena. Ekimen horrekin, neurrirako potentzia-elektronikako ekipoak garatzeko duen gaitasuna erakutsi nahi izan zuen.

Erdieroale horien ezaugarriek esker, galerak murriztu, konmutazio-maiztasuna areagotu eta korrante-harmonikoak gutxitu daitezke. Hori dela-eta, sistemaren eraginkortasuna handitu daiteke, eta bai bolumena bai pisua gutxitu.

Bada, erdieroale hauek mugikortasunean (trakzioan edo zama-azpiegituran) erabiltzen diren bihurtu ez ezik, energia-sorkuntzan eta -metaketan edo makina elektrikoak kontrolatzea eskatzen duten aplikazioetan ere erabil daitezke.

Motor elektriko eraginkorra

Halaber, ingurumenarekin duen konpromisoa dela eta, Teknikerrek erreluktantzia konmutatua eta zeharkako fluxu eraginkor, fidagarri, irmo, merke eta jasangarriagoa dituen motor elektriko baten eredua erakutsiko du, zentroan bertan oso-osorik garatua. Ideia hori Europako Weevil proiektuaren baitan sortu zen, eta hortik jaso du izena prototipoak.

Kasu honetan, sistema automobilgintzarako eta trenbideen sektorerako soilik pentsatu da; diseinu trinkoa dauka, osagai bakarrean biltzen baititu hiru elementu nagusiak: makina elektriko, abiadura-erreduktorea eta bihurtu elektronikoak.

Duen egituraren ondorioz, motorraren pare-dentsitatea areagotzen da, eta, aldi berean, ibilgailuaren transmisioa soilitzen, iman etengaberik erabili beharrik gabe. Halaber, neurri txikia edukita, osagai gutxiago daude, eta, beraz, gutxiago pisatzeaz gain, ibilgailuan toki gehiago dago.

Nazioarteko azoka

Go Mobility azoka nazioarteko ekimena da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatzen du, Eusko Jaurlaritzaren eta Ficobako antolakuntzaren laguntzarekin, fabrikatzaileentzat, industria laguntzailearentzat, hornitzaileentzat eta ikerketa-zentroentzat.

Bigarren edizioan, mugikortasunaren eta biltegiatze energetikoaren arloko azken berrikuntzak erakusteko guneaz gain, hitzaldiak eta mahai-inguruak egingo dira, eta posterrak ikusgai izango dituen gunea ere bai, aurrez aukeratutako hogeitau proiektu europarrekin.

Teknikeri buruz

Teknikerrek 40 urte inguruko esperientzia du teknologia aplikatuaren ikerkuntzan eta hura enpresetara transferitzen, eta, denbora horren ostean, espezializazio-maila altua eskuratu du lau arlo handitan (Fabrikazio Aurreratuan, Gainazalen Ingeniaritzan, Produktu-ingeniaritzan eta IKTetan), eta horrek abangoardiako teknologia hori bezeroen premien zerbitzura jartzea ahalbidetzen dio. Zentro teknologikoa Basque Research and Technology Alliance (BRTA) partzuergo zientifiko-teknologikoko kidea da.

Informazio gehiago:

GUK ▶ Javier Urtasun
urtasun@guk.es | Tel. 637 273 728